

AULESTI / 'Ipuinaren ordua'

Egilea: EDURNE BURGAÑA

'Ipuinaren ordua' Liburutegien Eguna izanda, hainbat ekimen antolatu zituzten, atzo, liburutegian; umeei ipuinak entzuteaz gainera, kontatu ere egin zituzten.

Liburutegi Eguna zela eta, Aulestiko liburutegian ekintza ezberdinak antolatu zituzten atzo. Horietako bat Ipuinaren ordua izan zen. 17:00etan hasita, hiru ipuin kontatu zituzten paperezko antzokia erabilita: Botadun katua, Jostuntxo ausarta eta Berunezko soldadutxoa. Ume batzuk ere animatu ziren kontatzera; guztira 50 lagunek parte hartu zuten.

Liburutegiko menua ekintzak ere arrakasta eduki zuen: 18 errezeta eroan zituzten. Gainera, opariak banatu zituzten joan zirenen artean.